


BABESTU ZURE PRIBATUTASUNA sarean



01 Aholkua SEN ONA

Erabili sen ona Internetez nabigatzean edo posta behatzean. Ez fidatu tentagarriegi diren iragarki eta eskaintzekin. Bizitza errealean bezalaxe, inork ez du deus oparitzen.



02 Aholkua INFORMAZIOA PARTEKATZEA

Internetez informazioa partekatzean behatu ongi erabiltzen duzun bitartekoa, informazioa norekin partekatzen duzun eta bitarteko horiek seguruak diren, eta sekula ez partekatu zure datu pertsonalak edo beste inorenak.




03 Aholkua ARGAZKIAK ARGITARATZEA

Ez argitaratu beste inoren edo adinez txikikoen argazkiak haien baimenik edo haien guraso edo tutoreen baimenik izan gabe.



04 Aholkua ERANTZUKIZUNA

Ez egin Internetez bizitza errealean egingo ez zenukeen ezer. Txantxa neurrigabe, iseka edo portaera desegokiak erantzukizun bera dute.



05 Aholkua WIFI KONEXIOAK

Internetera wifi konexio ireki eta ezezagunen bidez sartzean oso zaugarri bilakatzen gara, izan ere, hirugarrenek gure datu pribatu edo konfidentzialak eskura ditzakete.



06 Aholkua GIZARTE-SAREAK

Gainbegiratu dituzun profiletako pribatutasun-konfigurazioa. Gehienetan zure informazioa nork beha dezakeen edo informazio hori nahiz zure profileko datuak norekin partekatu nahi dituzun konfiguratu dezakezu.



07 Aholkua PERTSONA EZEZAGUNAK

Egin muzin pertsona ezezagunek lagun egiteko egiten dizkizuten eskaerei. Sarritan zaila izaten da haien egiazko identitatea argitzea eta beste pertsona batzuen lekuan jardun dezakete.



08 Aholkua ERABILERA-BALDINTZAK

Irakurri webguneetako edo deskargatzen dituzun aplikazioetako erabilera-baldintzak.

